

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 11 / 568. zenbakia



**Unai
Sarabia**

**Arrasateko
azkarrena
60 metroetan**

ORAIN ETA HEMEN: KIROLDEGIKO TARIFA ALDAKETA/8 • KIROLA: MONDRAK ONDO HASI DU URTEA/10

ARGAZKIA: ARRASATE ATLETIKO TALDEA. AZALA: ALEX AZKARATE



Beatriz oinetakoak

• BEHERAPENAK • BEHERAPENAK • BEHERAPENAK • BEHERAPENAK


Erdiko kale, 11 • ARRASATE • Tel.: 943 79 14 33



KALEINKESTA/ Euruekin preziuek gora egin dauenik igerri dozu? Konponketan zara euruekin?



JABIER IRIBECAMPOS
Langillie



ARKAITZ ARREGI
Langillie



KARMELO SAGASTA
Langillie



MAIDER MORRAS
Langillie



AURORA AGIRREGOMEZKORTA
Langillie



ELISABETH FERNÁNDEZ
Langillie

Nik ez dot askorik igerri igo danik. Eskatzen dauena ordainketan dot, besterik barik. Bestela, euruekin momentuz, zailtxuago egi-tten jat, baiñe ikesten noie, eta ondo.

Ez dot askorik igerri. Bes-tela, hasieran euruekin oso liaute ibilli naz. Preziue-kin-eta apur bat nahastute. Eskaketan dauena emun eta bueltak poltsikora, begi-ttu barik.


Ni, gehixenbat, tabernetan ibilli naz, eta "alde gorri-xen" preziuek ez die igo. Hortik kanpo ez dot ixte erosketarik egin. Euruekin konponketan naz, Fran-tzian antzera.

Bai, igerri dot preziuek gora egin dauela, batez be, aldiz-karixetan. Tabakue be igo-ko da, edarixek ondiokan ez. Janarixen ez dot igerri. Orokorrien igo egin dittue borobilketie egitterakuen.

Egixa esanda ez, ia begittu be ez dot egin. Esan dus-tiena ordaindu dot eta kitto. Ez dot horrenbeste igerri, urte hasieran beti egoten die igoerak. Hala be, ez dot gauza askorik erosi.

Ez dauket erreferentzia haundirik, baiñe, adibidez, periodikue askotxo igo da. Balitteke biher baiño gehi-xago garestitu izena boro-bilketie egitterakuen. Bes-tela, euruekin ondo.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK JAIOTZARI KALTEAK San Andres parrokiako batzordekoek Gabonetan Santa Barbara parkearen azpiko aldean jarritako jaiotzak kalteak jasan ditu egunak aurrera joan ahala. Izan ere, ezezagun batzuek jaiotzako zenbait elementu apurtu egin dituzte eta beste batzuk erre. Jaiotzaren egile eta arduradunak oso haserre daude, eta ez dute ulertzen haien jarrera horrelako lanekiko.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

GU BE BAI hitzarmena

Hamabi urte beteki dugu aurten eta etengabe goruntz doa euskararen aldeko hitzarmen hori.

KULTURA /14

Gaizka Mena- ren erakusketa

Gaizka Mena arrasatearrak marrazki erakusketa jarri du oraingo astean Gaztetxean.

ZAHARRAK BERRI /17

Bainuetxeetara joateko sasoia

IMSERSOk urtero antolatutako bainuetxeetarako txangoen epea zabalik dago dagoeneko.

ASTEKO DATUA

120,8

EURO KOSTAKO DA KIROLDEGIKO ABONU PLUSA

Musakolako kiroldegian egingako berrikuntzak direla-eta, lau abonua daude aukeran. Bata, Abonu Plusa da eta kiroldegian dau den zerbitzu guztiak batzen ditu, gune umela eta lehorra.

BESTE EKESANA

“ Arrasateko esaera zahar batek dio: Lekutan dago Mendaro... Eta Huelva, Puerto de Santamaria, eta abar... non dauden konturatzeko oso komenigarria da asteburu batean presoak bisitatzen joatea. Gabonetan Huelvaraino joan gara Jesus Mari Zabarte eta Jon Agirre bisitatzen. Jonek 20 urte daramatza preso, eta Jesus Marik, berriz, 17 urte. Biek hiru laurdenak aspalditik bete dituzte, eta etxean egon behar zuten. (...) Hainbeste urte sakabanaketa nazkagarria jasan eta gero, azpimarratzekoa, txalotzekoa da gure presoek daukaten moralak eta duintasuna. Eta guk, sakabanaketa amaitzearen eta presoaren eskubide demokratikoen errespetatzearen alde gaudenok, zerbait gehiago ezin dugu egin?”

JUAN RAMON GARAI
EUSKALDUNON EGUNKARIA/02-01-08

HERRITARREN BERBAK/ Eneko Barberena



Jainkoa ez da batere neutrala

Arrasateko aldezkarikutire batean (eta ez da *Goienkaria*) irakurri nituen George W. Bushen ondorengo hitzak: "Jainkoa ez da neutrala". A ze nobedadea! Euskaldunok aspalditik dakigu goikoa beti egoten dela norbaiti laguntzeko prest eta bere menekoak lurtean ez dira ezta oso neutralak. Nork lagundu zion bestela Fernando Katolikolari 1512an Nafarroa konkistatzen? eta Ferrolgo harakinari bere gurutzada santuan?

Baina azkenaldian gehien harritu nauena (onerako) kalean itsatsirik dagoen afitxa bat izan da, ingelesezko esaldi "cool" batekin. Don't worry be happy, nahiz eta Banco Guipuzcoanoko hesia oraindik argazkiz beterik egon. Don't worry be happy, abenduaren leian ertzainek Musakolan erakutsitako harrokeria eta inpunitatearen ostean. Egon lasai, egunen batean guk ere Arralden bezalako poliziak izango

ditugu eta. Don't worry be happy. Guimon familiak pairatzen dituen erasoak guri bost axola digutelako. Don't worry be happy, hiltzen den langile bakoitzeko langabetu bat gutxiago dagoelako. Don't worry be happy, lastertasun handiko mokordo batekin gure mendi kuttunena *gruiere* gazta baten antzera uzteko asmoa dutelako. Don't worry be happy, unibertsitateko ikasleok, LOUarekin ere ostegunetako parrandak berdindin egingo dituzue-eta.

Ez ezazue pentsa, otoi, ni "amargatu" bat naizenik, ni ere pozik egoten naiz eta badituz horretarako arrazoiak. Joxe Ripiau-ren *Positive Bomb* abestiak dioten bezala, bizitza era baikor batean ikusi behar da, baina gure zibilborzulotik at begiratuz, noski.

Amaitzeko, Jainkoari galdera bat: Zergatik eman zenigun bizkarra Karlistadetan? Gehiago errezatzen ote zuten liberalek?

“Ez ezazue pentsa amargatua naizenik. Bizitza era baikor batean ikusi behar da, baina zibilborzulotik at begiratuz”

Arrasate

Otalora lizentziaduna z/g
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera,
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla,
Izaskun Bolinaga,
Natali Martinez,
Imanol Elortza.

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Ganzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 11**
M.F.Azkoaga, Iturriotz.....943 79 79 99
- ZAPATUA, 12**
M.Corcuera, M.Aranbarri 1.....943 79 22 26
- DOMEKA, 13**
J.A. Irizar, Erguin 11.....943 79 12 39
- ASTELEHENA, 14**
L. Amezua, Santa Marina 32.....943 79 09 74
- MARTITZENA, 15**
I. Zabala, Zarugalde 42.....943 77 16 30
- EGUAZTENA, 16**
A. Ruiz, Maala 31.....943 79 14 09
- EGUENA, 17**
S. Español, Araba etorb. 17.....943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea... 943 03 53 00
Iguualatorioa... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak... 943 79 39 00
Emakumeak... 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa... 943 79 90 11
- LARRIALDIK**
SOS Deiak... 112
Gurutze Gorria... 943 76 55 76
DYA... 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua... 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera... 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan... 14:00etatik 08:30era
Asteburu eta jaiegunetan... egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera... 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak... 943 03 53 11
• Ikuskatzailea... 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak... 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako ambulanziaz... 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate... 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua... 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea... 088

- MATXURAK**
Urak (Udal zerbitzua)... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero)... 943 12 01 62
Gasa... 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak... 943 79 12 22
PESA... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENDAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza... 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monteiron... 943 77 01 05

MEZAK

- San Joan parrokia**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 (gaztelaniaz) 11:00 (meza nagusia (euskaraz)) 12:30 (elebiduna)
- San Andres eliza**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 (meza nagusia (euskaraz)) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 10:30 (gaztelaniaz) 11:30 (San Isidron (euskaraz)) 12:30 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**
Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 12:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parrokia**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)

OHARRAK

'HORRA MARI' SAIOA
Lausardi koru sinfonikoak *Horra Mari* saioa eskainiko du zapatuan, Amaia Antzokian 19:00etan. Koruko partaideek aditzera eman dutenez, gainera, diskoa salgai jarriko dute emankizunaren egunean.

'AITA GURIA' AMAIA ANTZOKIAN
Urtarrilaren 17an, Jon Anduezen *Aita Guria* film laburra estreinatuko dute Amaia Udal Antzokian, gaueko 21:30ean.

SANTAMAS ERRIFA
Jose Manuel Zulueta bergararrak eskuratu du txerria 9.708 zenbakiarekin.

YOGA IKASTAROA
Arrasateko Yoga Elkarteak ikastaro bi antolatu ditu. Bata, urtarrilaren 7tik martxoaren 11 arte, eta bestea, urtarrilaren 9tik martxoaren 13ra.

SABEL DANTZA IKASTAROA
Gazte Sailak Sabel Dantza Ikastaroa antolatu du urtarrilaren 19tik otsailaren 23ra arte., zapatuetan, 16:00etatik 18:00etara. Matrikula 30 eurokoa da, eta ikasle eta langabeendako 15 euro.

MARRAZKI ERAKUSKETA
Gaizka Menak marrazki erakusketa jarri du Gazte-txean urtarrilaren 19 arte.

AEDrenAGENDA

ARRASATE LEHIAKETAK
Abian dago XVI. Arrasate Lehiaketak. Ipuinak, poesiak, komikiak, bertso-paperak... ahal den lasterren AEDra bidali.

DEBAGUNEO EGUTEGIAK
Debaguneko egutegiak salgai daude 2,40 eurotan AEDn bertan.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, Ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Harresia erakustoki bihurtu gura dute

Harresiarekin zer egin erabakitzeko udal ordezkariak batzar asko egin ondoren, etxabea erosi du Udalak. Lokala erostean gain, hasiera baten erakustoki moduan erabiltzeko asmoa duenez, Udalak egokitu egin behar du eta horretarako 4,5 milioiko aurrekontua dauka.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru


"Imintziñua"

Aurpegiz, nahiz eskuz, nahiz bestela egindako keinua.
-Aitta-zanak bajaukan esaera ori: imintziñua besteik eztauke ume onek.
- Orrek aren zera oso edarki eitten dau aren jestua, aren kiñua ero, aren iminziñua ero, aren plantia ero.



GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Ikurrinaren 25. urteurrena gogoan

Urtarrilaren 19an, 25 urte beteko dira ikurrina legeztatu eta Arrasateko Udaletxeko balkoian jarri zenetik. Egun hartan, ospakizun jendetsuak egin ziren Euskal Herriko hainbat lekutan, eta Arrasaten egindakoaz mintzatu gara hilaren 19an, 10:00etatik aurrera. Orduko alkatearengana joko dugu, Jose Antonio Altuna Txatillo-rengana.

Martitzenean, Roman Balantzategi medikua etorriko da irrartira, eta hirugarren adinean osasuna zaintzeaz berba egingo du.

Galder Cristobal asteko errepassoan

Galder Cristobal bedoñarrari egindako elkarrizketa izango duzue entzungai asteko errepassoan. Galder fisikaria da, eta AEBetan zelan bizi den kontatuko digu. Eneko Eraña eskoriatzarrari egindako elkarrizketa ere izango duzue entzungai. Xeleberri saioan parte hartzen du Enekok, eta antzerkia ikasten dabil. Bukatzeko, eskiak jantzi eta elurretan murgiltzeko aukera eskainiko dizuegu, Bakeiran snowa irakasten ari den Maria Carrascoren bitartez.

HAUGIROA!

MINIMOA	Martitzena, 8	-2 °C
MAXIMOA	Eguena, 3	16 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)		10,5 l

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 2	11 °C	9 °C	-
Eguena, 3	16 °C	4 °C	10,5 l
Egubakoitza, 4	12 °C	9 °C	-
Zapatua, 5	14 °C	1 °C	-
Domeka, 6	12 °C	0 °C	-
Astelehena, 7	12 °C	-2 °C	-
Martitzena, 8	12 °C	-2 °C	-

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIONA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena

ASTELEHENA
21:00 Maiuskulaz idatzitako Rock-a

MARTITZENA
21:00 Hi bizi hadi

EGUAZTENA
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokatzen

EGUENA
21:00 Gailurretik

EGUBAKOITZA
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak

ZAPATUA
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:50 Asteko elkarrizketak

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Hasi dira "euroaren lehen beherapenak"

Joan den astelehenean hasi ziren erosketak egiteko euroa erabili beharreko beherapenak. Hasiera baten lasai hasi dira arrasatearrak erosketak egiten, baina baliteke eguntan zoramen uneak gertatzea. Dendariak legez derrigortuta daude produktuen lehengo prezioa eta beheratu ondoko salneurriak argi eta garbi jartzera. Oraingo beherapenetan, gainera, salneurriak pezetatan eta eurotan jarriko dituzte denda gehienetan; oraindik ez gara txanpon berrira guztiz ohitu eta erreferentzia gisa ondo datorkigu.

Bihar bukatuko da zentsua egiteko epea

Zentsua berritzeaz arduratzen den taldeko arduradunaren esanetan, bihar bukatuko da zentsua egiteko epea. Orain arte galdetegiarekin etxez etxe ibili dira Arrasaten zehar, baina oraindik hainbat herritarrek zentsua eta errolda bete barik dituzte. Horiei deialdia egin diete berehalaxe Arrasate pasealekuan daukaten bulegotik, IMIren lokaletatik, pasa daitezen. Bihar, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 14:00ak arte izango da bulegoa zabalik.

Arrasateko Euskal Kulturaren Azoka

Iaz etenaldia izan zuen, baina aurten egin zen Arrasateko Euskal Kulturaren Azoka. Aurtengoak berritasun handiak izan zituen. Hain zuzen ere, liburu, disko, bideo, CD-ROM eta antzekoek gain, herriko artisauen eta artisten lanak ere erakusgai eta salgai izan zituzten lehenengo aldiz. Horrez gain, kokapena aldatu egin zuten. Seber Altuben egin bazuten ere, ohiko frantziskotarren egoitzatik ludotekara pasatu ziren Gabonetan. Azoka abenduaren 21etik 24ra egin zuten, eta aurreko urteetan baino jende gutxiago hurreratu bada ere, baikor zeuden antolatzaileak; esan zuten jende gutxiago joan izanaren arrazoia kokapen berria izan dela.



ERREGEEN KABALGATA HERRIAN ZEHAR

Goiz heldu ziren Erregeak Arrasatera. Zaldiak atarian utzi eta Iturbide egoitzako aiton-amonei bisita egin zieten. Umeek Gabon-kantak abesten zituzten bitartean, Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek opariak eman zizkieten aiton-amonei. Gero, herri kabalgata egin zuten.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Ea zer ekartzen digun 2002ak

Oporretatik bueltan gator berriro, oporretatik baino Gabon eta giro freskozko atsedeen egun hauen bueltan. Konturatuko zineten ikasleen antzera aste honetan hasi garela lanean. Merezia geneukan, pasa den urtean egindako lanarengatik, edo hori uste dugu guk, behintzat. Gainera, azkeneko alean zeresan handia eman duen 2001. urtearen gainbe-

giratu mardula eskaini genizuen. Dena irakurtzeko astia izan duzue? Bueno, gordetzeko ere balio izan dezake, noski.

2001. urtea ez da urte makala izan, ez. Zeresana eman du eta emango du urte horrek, zalantza barik. Nazioartean, zer esanik ez, New York-en eta Washington-en gertatutako atentatuak, Afganistango bonbar-

daketak, moroaren aurkako ehizak eta Ben Laden delakoa.

Gure artean -hori ere aipatu behar, noski- ARRASATE PRESSEk izan duen birmoldaketa. Izugarrikoa izan ez bada ere, hamahiru urtean formatu berbera izanak aldaketa beharra zekarren. Ibarreko herri aldizkariak *Goienkaria*-rekin bat egiteko halabeharrezkoa zen. Edukiak hobetzen saiatu gara, eta ziur ohituko zaretela.

ASTEKOIRUDIA



XABI URZELAI

LAPURRETA ELKORON MARTITZEN GOIZALDEAN

Seber Altuben dagoen Elkoro dendan lapurretan egin zuten martitzen goizaldean. Lapurrak ostutako auto batez baliatu ziren Elkoro dendako erakusleihoa apurtu eta hantxe zeuden hainbat tresna lapurtzeko. Lapurreta goizaldeko ordu bietan gertatu zen, eta inguruko bizilagunek ez zuten ezer

entzun. Erakusleihoko kristala ez zen apurtu, baina autoaren kolpearen ondorioz kristala bere lekutik atera zuten. Horrela, lapurrek dendan sartu eta hamar bideokamera digital eta Play Station-2 bideo jolas bat lapurtu zituzten. Elkoroko arduradunaren esanetan, kalteak 6.000 eurotik gorakoak dira.

ION LEHIOAK

Leihoak
Ateak
Horma armairuak
Zoruak

Kanpantorrea, 2
Tel./faxa: 943 79 11 35
20500 ARRASATE

ASESORIA ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

ELKARRIZKETA

JON ALDANONDO/ATBKO ETA GOITBKO LANGILE OHIA

“GOITB gertukoa da, pobrea diru aldetik, baina aberatsa ilusioz, eta polita”

UBANE MADERA

Hamar urte luzez ATBn eta GOITBn lanean ibili eta gero, Jon Aldanondok Goiena utzi zuen abenduan. Hark zeramatzan urte gehien herriko telebistan lanean, bekadun moduan hasi zen asteburuetan eta teknikari izan eta gero, telebistako arduradun izendatu zuten; azken urteotan Goienaren hedatze prozesuan ibili da. Ezkio-Itsasoarra jaiotzez eta Ormaiztegiarra izatez, Gabirian bizi da orain dela bi urtetik hona. Dena dela, Goierriar honek makina bat kontu ditu gure telebistari buruz:

Zelatan Goierriatik Arrasatera?

Nik garbi neukan Andoainen ikasitakoarekin bakarrik ez nuela lanik izango, zerbait gehiago behar nuen. ATBn ikasi eta lan egiteko aukera eskaintzen zuten bekak atera zituzten, eta hementxe hasi nintzen. Eta egia esan, ikasteko aukera onena horixe izan zen...

Hasieran erreparoa eman zidan; Arrasate ez nuen ezagutzen; eskubaloian jokatzea erortzen nintzen bakarrik... Gurasoek ere esan zidaten: “Haraino lanera?”. Hasi nintzen ikasteko aitzakiarekin eta, egia esan, ez nuen uste hemen lanean jarraituko nuenik, eta begira, hamar urte!


Eta orain, aspertu egin zara Arrasaten?

Aspertu ez da hitza. Nik uste dut ziklo bat amaitu dela. Ni hemen lan jakin bat egiteko nengoen eta nik uste dut lan hori egiteko txanda-aldaketa oso ona dagoela orain, nik egiten nuena eurek oso ondo egin dezaketela. Niri gehiago gustatzen zait eguneroko programazioan baino telebistaren tripa muntatzen aritzea: kableatuak, eskemak... eta horren inguruan sor daitezkeen baliabideak. Eta hemen, Arrasaten, lan hori egin da dago, bukatu da.

Bestalde, ezkondu egin naiz eta bizimodua aldatu egiten da, lotura berriak sortzen dira... Gainera, gustatuko litzaidake lana, ahal bada, etxetik gertu izatea.

Hortaz, hemen ibili zarenean gustura ibili zara?

Lagun piloa egin ditut, eta uste dut arrasatear askok baino arrasatear gehiago ezagutzen ditudala. Gainera, nahiz eta lan zikloa amaituta egon, uste dut nire loturak jarraitu egingo dutela, bai nire lagunekin baita GOITBekin ere; izan ere, antzerako medio baten lan egin nahi badut, Goiena Telebistarekin beti izango dut harremana. Ez da puntu eta aparte, puntu eta jarrai baizik.



ARTXIBOA

“Hasieran erreparoa eman zidan, ez nuelako Arrasate ezagutzen; eta hamar urte egin ditut”

ATBren hasieran ere hemen zinen, zelakoa zen hura?

Hasiera guztiak dira politikak eta gogorrak. Gogoratzén dut orduan sekulako ilusioa zegoela gauza berri bat egiteko. Guk uste genuen herrian telebista bat egitea ezinezkoa zela eta, gainera, euskaraz, hortaz, erronka handia zen guretako eta ilusio handiarekin ekin genion.

Lan egiteko modua ere desberdina zen; gaur egungoarekin konparatuz, artisau-lana egiten genuen. Askoz gehiago kostatzen zen, genituen medioak eguraldiaren arabera ibiltzen ziren; batzuetan bai, bestetan ez... Nik uste dut ilusioarekin egindako lana zela.

“GOITB oso ondo ikusten dut, oso sare ona duelako: udalak, euskara elkarteak, eta bazkideak”

Soldata irabazten genuen, baina nik uste dut ikusten zela ikasitakoa erakusteko gogo geneukala. Eta berdin zigun bi ordu gehiago sartu. Lana ere gehiago kostatzen zen, materialak askoz ere motelagoak ziren... Kalitate aldetik ez zen oso ona (irudi aldetik...), baina intentzio aldetik ezin hobea zen. Askoz errazago barkatzen zituzten hanka-sartzeak... Guk ilusio handia geneukan, baina baita herri-tarrek ere. Hortaz, nahiz eta forma aldetik oso ona ez izan, hori barkatu egiten zen. Hori da, zorionez, gaur egun egin ezin daitekeena. Pixkanaka-pixkanaka hobetuz joan da: jende gehiago, egoitza aldaketa, material berriak...

“Norbaitek izan du abilezia ibar honetan jendea preparatzeko eta lanean ipintzeko”

Aldaketa horien artean zein da zuk gehien igarri duzuna?

Hasierako urteak oso zailak izan ziren, bereziki, lan egiteko erabiltzen genuen formatuarengatik. Telebista erdi profesionala zen, Super VHS-n egiten genuen lan eta hori oso gogorra zen, ez zelako lanerako pentsatutakoa, baizik eta etxean erabiltzekoa. Hortik formatu profesionalera (Betacamera) salto egitean, lana azkarrago eta hobeto ateratzen zen; konfiantza hartuz joan ginen, eta kalitate aldetik asko igarri zen.

Bestalde, nire kasuan asko gogoratzen dudana aldaketa da tekniko izatetik arduradun izatera pasatu nintzenean. Izugarritzko

lantalde aldaketa izan zen; ni nintzen beteranoetakoa, eta, gainera, arduradun, eta 23 urte baino ez nintuen. Zalantza handiak izan nintuen, baina aurrera egin behar.

Gero, gogoratzen dudana etape txar bat da Inigo Andola joan zenean. Biok lantalde ezin hobea osatzen genuen, hitz egin gabe uztetzen genuen elkar. Eta nik uste dut momentu hartan laguntza behar nuela, eta oso gogorra izan zen...

Bitxikeriaren bat...?

Behin, Maider Egues zuzeneko albistegia aurkezten zebilela, foku baten bonbilla lehertu egin zen. Maider zuri-zuri geratu zen eta guk barrutik esaten jarraitzeko, ez zela ezer; beste behin, mahai-inguruan zuzenean geundela, argiztapeneko argia joan zen, eta urduritasun une hartan aurka-leak erabaki zuen argi gabe erurrera egitea. Han ez zen ezer ikusten eta hark esan zuen: “Berdin da, entzun egingo gaituzue”, eta aurrera egin zuen.

Deskribatu GOITB lau hitzetan.

Gertukoa, pobrea diru aldetik, baina aberatsa ilusioz, polita eta jendeak uste duena baino lan asko ere handiagoa eskatzen duen medioa.

GOITBren etorkizuna...?

Etorkizun ona dauka, izan ere, Gipuzkoako edo Euskal Herriko edozein herri-telebistarekin konparatuz gero, 11 urteko esperientzia duen bakarrenetarikoa da. Esperientzia horretatik abiatuta, uste dut gauza onak egin direla eta egiten ari direla. Jakina, baina, dago zer hobetu. Eta horren barruan, eskualde edo herri-telebisten arteko loturak eta ETBren kiko harremanak hobetu egin beharko liriteke, eta kuantitate berririk baino, kalitateari begira, behar zaiola. Telebista baten etorkizuna kalitatean dago, besteak beste, lehiatzeko. Eta, jakina, gertuko ari eman behar zaio garrantzia Programa jeneralisten arteko lehiakortasuna infinitua da, baina gertutasunean zeu izan behar zara nagusi, eta izan zaitezke. Bestalde, Goiena Telebista oso ondo ikusten dut, oso sare onak duelako: Udalak, aldea batetik, euskaraz elkarteak, bestetik, bazkideak... oso zabaldua dagoen piloa dauka eta ondo finkatuta da eta horrek indarra ematen du. Telebista muntatzeko gai izan da ibar honetan beste gauza asko egingo teko gai izan diren moduan. Norbaitek izan du abilezia ibar honetan jendea preparatzeko eta lanean ipintzeko. Harrigarria da ibar honetatik zenbat gauza ateratzen diren, ikusita zein komunikatzen eskasak dituen.

Gu Be Bai hitzarmenak dezente egin du gora azken urteotan

UBANE MADERA

Gu Be Bai hitzarmenak hamabi urte beteko ditu aurten. Orain arteko emaitzak ikusita, antolatzailleek adierazi dute, batetik, egitasmo horrek herrian eragin positiboa izan duela, eta bestetik, gero eta hitzarmenakide gehiagok dutela euskararen erabilera bultzatzeko plana.

1990eko martxoan, herriko 38 elkartek Euskararen Erabilera Sustatzeko Gu Be Bai hitzarmena sinatu zuten Mondragoen. AEDk, Ikastolak, San Viatorrek, Umezaintzak eta Udalak lankidetzan sortua, hitzarmenaren helburua da, oro har, sinatzaileek euskara erabili eta bultzatzeko konpromisoa hartzea.

Hamaika urte baino gehiago pasatu dira ordutik hona, eta Gu Be Bai hitzarmenaren osasuna ezin hobea da. Arduradunek adierazitakoaren arabera, "hitzarmenak herrian izan duen eragin positiboaz gain, euskara orain artean heldu barik zegoen esparruetara ere iritsi da (aseguruak, fakturak, nominak, kontratuak...)" Gaineratutakoaren arabera, "azken lau urte hauetan, erakundeari egokitutako normalizazio planak egin ditugu, eta



1990. urteko martxoan sinatu zuten Gu Be Bai hitzarmena.

dagoeneko 50ek daukate euren beharretara egokitutako hizkuntza plangintza".

Ehun eta hogeita bi elkartek sinatu dute Gu Be Bai hitzarmena; tartean, kultura eta kirol elkarteak, eskolak, enpresak, merkataria, talde politikoak eta sindikatuak, erakunde publikoak eta aurrezki kutxak daude. Helburua da etorkizunean elkarre horiek guztiek normalizazio plana izatea; hau da, erakunde bakoitzaren ezaugarriak eta

hasierako hizkuntza egoera aztertu ondoren, eurekin batera zehaztea aurrera begira egin beharrek urratsak.

HIRU HITZARMENALDI

Hiru hitzarmenaldi izan ditu euskararen aldeko Gu Be Bai hitzarmenak: lehenengo hitzarmenaldia (abiatzea, 1990-93); bigarrena (sakontzea, 1993-97) eta hirugarrena (banakako erabilera planen aldia, 1997an hasi eta oraindik amaitu ez dena).

San Andres auzoan bidegorria egiteko proiektua onartu dute

UBANE MADERA

San Andres auzoan bidegorria egiteko proiektua onartu du Udaleko Gobernu batzordeak. Horrela, orain, lan horiek adjudikatu beharko dituzte eta gero hasiko dira lanak egiten, hiruzpalau hila-bete barru. 116 mila euro pasatxoko (19 milioi eta erdi pezeta

inguru) inbertsioa egingo du Udalak bidegorrian.

HERRI OSORAKO

Fagor San Andresen hasi eta Meca eta Ford Mugarriraino iritsiko da San Andresko bidegorria; pabilioi horien atzeko aldetik pasatuko da, eta guztira 460 metro luze izango da hasierako zatia. Gero, Fagor

Garagartzan egin behar dituzten lanak egitean, jarraipena emango diote bidegorriari. Udalaren asmoa da bidegorriak herri osoa zeharkatzea. Hortaz, San Andresko zatiak jarraipena izango du Fagorren atzeko aldetik Umezaintzarantz, handik Cerrajerako etxebizitzetarantz eta handik, atzeko aldetik, Musakolaraino.

LABUR

Sonografoak direla-eta, beste bost tabernari espedientea ireki die Udalak

Herriko sei tabernatan ipinitako sonografoen emaitzak jaso ditu Udalak. Eta, emaitzen arabera, sei taberna horietatik bosti isuna ipintzeko espedientea irekiko die Udalak. Hain justu, Ispilu eta Lontxo tabernei legeak ezarritako ordutegia ez betetzeagatik, eta Fronton, Garibai eta Ugarte tabernei, ordutegia ez betetzeagatik eta legeak ezarritako zarata maila gaintzeagatik. Udalak tabernetan sonografoak jartzen segituko du, legedia betetzen den edo ez ikusteko. Hain justu, orain beste hiruzpalau sonografo ipini ditu.

Langilerik ez kaleratzeko eskaera egin dio ELAK Auzo Laguni kale bilkura baten bitartez

ELA sindikatuak kale bilkura egin zuen pasa den astelehenean Auzo Lagun enpresaren aurrean. Orain dela hilabete, enpresa horretatik langile bat kaleratu zutela-eta egin zuen protesta ELAk. Hain justu, langilearen kaleratzea bidegabekoa izan zelako, ELAren ustez. Horrekin batera, Auzo Lagun enpresaren lan-baldintzak kaskarrak direla salatu du sindikatuak.

Bestalde, atzo, Auzo Lagunen izandako kaleratze horrekin lotutako epaiketa izan zen.



Elkoron lapurretan egin dute

Astelehen goizaldean, ezezagun batzuek Seber Altube plazan dagoen Milar-Elkoro dendan lapurretan egin zuten. Lapurtutako auto batekin dendaren erakusleihoaren kontra jo zuten eta goitik behera apurtu zuten kristala. Gero, erakusleihoan zeuden 10 bideo-kamera digital eta Sony Play Station-2 lapurtu eta ospa egin zuten. Jesus Mari Elkorkok Arrasate Irratiari adierazitakoaren arabera, kalteak 6.000 eurotik gorakoak izango dira.

KUTXA-REAL SOCIEDAD TXARTELAK Oso Realzaleentzat bakarrik



Zu bezalako pertsonentzat, Reala oso modu berezian sentitzen dutenentzat, pentsatuak daude Kutxa-Real Sociedad Maestro eta MasterCard txartel berriak. Txartel hauek erabiltzeagatik, prestazio finantzario guztiez gainera, opariak ere lortu ahal izango dituzu. Anoetako partiduetarako sarreraren zozketan parte hartu, eta bi pertsonarentzako bidaia baten zozketan ere bai,

gure taldea bere desplazamenduetako batean laguntzeko.

Gainera, 2002ko otsailaren 1a baino lehen eskatu eta erabiltzen baduzu, CD zoragarri bat, Txuri-Urdin abestiaren 5 bertsio berezi biltzen dituen, eramango duzu opari.



Eskatu kutxaren bulegoetan edo www.kutxa.net helbidean.

kutxa
zure diruaren balio erantsia

Kiroldegiko 2002ko prezioak aurkeztu ditu AUKEA kirol erakundeak

UBANE MADERA

Eguaztenean prentsaurrekoa egin zuen AUKEA, kiroldegiko prezio berriak aurkezteko. Prezioak, oro har, izaokoak baino garestiagoak izango dira, baina AUKEA ezarritako abonua eta beherapen sistema berriekin, askok lehen baino gutxiago ordaindu beharko dute.

Berritasunez beteta datoz kiroldegiko aurtengo prezioak. Eurotan izateaz gain, lau abonua mota egiteko aukera izango du erabiltzaileak: igerilekurakoa, kiroldegirakoa, plusa (aurreko biak batzen dituen) eta udako abonua. Lehenengo biek, 80'55 euro balioko dute (banakako bonoa eta helduendakoak), abonu-plusak 120'80 euro eta udakoak, 40'25. Berritasun moduan, kiroldegirako abonua edo abonu-plusa hartzen duenak Musakolako, Iturripeko edo Uarkapeko kantxak astean ordubetez erreserbatzeko eskubidea izango du. Hortaz, hemendik aurrera, kantxen alokairuak ezabatu egiten dira. Bazkide izan eze-



Joseba Ugalde, Haritz Azkarraga, Ramon Jauregi eta Barriocanal prentsaurrekoan.

an kantxaren bat erabili gura izanez gero, nahikoa izango da kiroldegirako sarrera ordaintzea (betiere, kantxa libre badago, jakina).

Bestalde, bazkide ez direnendako kiroldegirako sarrerak 4'50 euro balioko du. Iaz baino 49 pezetan gehiago. Baina nahiz eta garestiagoa izan, zenbaitzuek orain arte baino gutxiago ordainduko dute. Izan ere, AUKEA beherapenak

egiteko sistema berria ezarri du: norberak ahal duenaren arabera. Horrek esan gura du, adibidez, pensio altua jasotzen duten erretiratuek ez dutela beherapenik izango eta, aldiz, soldata baxua jasotzen dutenek bai. AUKEAko ordezkarien esanetan, aldaketa horiek ezarri dira jendearen erosotasunerako eta zerbitzu ahalik eta osatuena eskaintzeko.

Kiroldegiko eguzki plakak abian daude dagoeneko

UBANE MADERA

Musakolako kiroldegiko igerilekuan dauden eguzki plakak oraingo astean ipini dituzte abian. 60 m²ko azalerako plaka horiek kiroldegiak erabiltzen duen energiaren %10 lortuko dute. Udalak 200 m² ipini gura ditu.

Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak sinatutako hitzarmenaren aurreko urratsa bete da oraingo astean Mondragoen: martxan jarri dituzte Musakolako kiroldegiko igerilekuan ipinitako eguzki plakak. 60 m²ko azalera dute eta, aurreikuspenen arabera, kiroldegiak erabiltzen duen ener-

giaren %10 lortuko da. Edozelan ere, Udalaren asmoa da, guztira, kiroldegiak behar duen energiaren %30 lortzea. Horrekin, kiroldegiak sortzen duen kutsadura dezente murriztuko dute: urtean 15'5 tona CO₂ gutxiago. Eta, eraberean, kiroldegiaren diru-gastua ere gutxituko lukete. Hori guztia lortzeko, 200m²ko azalera ipini beharko dituzte plakak, eta horretarako sinatu dute hitzarmena EEErekin. Hogei milioi pezetako inbertsioa egin beharko dute. Udalak beharrezko datuak eman dituzkie EEEri 200 m²tan plakak ipinitzeko. Orain, Energiaren Euskal Erakunde lanean hasteko zain daude.

Santa Barbarako jaiotzak apurketa ugari izan ditu Gabonetan


UBANE MADERA

Santa Barbara parkean Gabonetan ipini zuten jaiotzari triskantzak egin zizkieten Gabon jaietan zenbait ezezagunek. Santamasi ostean agertu ziren apurketa gehienak (jendearen dirulaguntzak batzeko ipinitako itsasontzia apurtuta, foku bat baino gehiago erre eta apurtuta...). Baina ondorengo egunetan gauza gehiago apurtu dituzte. Adibidez, Errege



Dirua batzeko itsasontzixoa, apurtuta.

egunerako jaiotza berriro ere konpondu zuten antolatzaileek, eta ordutik hona gauza batzuk lapurtu dizkiete. San Andres parrokiako batzordea (jaiotza ipini duen taldea) oso haserre dago gertatutakoarekin; jendearen errespetu falta salatuta dute taldekideek, eta guztion erabilerarako den zerbait era horretan apurtzea lotsagarria dela. Edozelan ere, datorren urtean ere jaiotza ipiniko dutela iragarri dute, "handiagoa eta hobea, gainera".



2002ko gida, datorren astetik aurrera

Datorren astetik aurrera hasiko dira banatzen 2002. urteko telefonoen gida. Goiena Komunikabideen ardurapean, 12.300 gida banatuko dituzte Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Gatzagan eta Aramaion. Esan bezala, datorren astean hasiko dira banatzen, baina, jakina, leku batzuetara beste batzuetara baino geroago iritsiko da, pare bat aste geroago-edo. Edozelan ere, arazoren bat izanez gero, deitu 943 712391 telefonora.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



SORALUZeko UMEAK GUREAN GABONETAN

Urtekariarekin gora eta behera genbiltzanean, abenduko azken astean, hain zuzen, Soralezeko gaztetxo hauen bisita izan genuen. Aurreko baten Soralezetik bisitan etorri zirenean sekulako iskanbila izan zen gurean, baina hauek zintzo arraio egon ziren. (Olentzero etortzekotan zen-eta). Goiena Telebista, Arrasate Irratia eta ARRASATE PRESS ikusi eta gero, pozik bueltatu ziren, edo hala uste dugu, Soralezera.



PROTESTA ORIGINALA

Lontxo tabernakoak dagoeneko aspertuta daude euren tabernako hormetan egiten dituzten pintadez, eta inork lezer idatzi aurretik eurak aurreratu egin dira; argi eta garbi utzi dute pintada horiekin aspertuta daudela. Gabonetan jende asko geratu da Lontxo tabernako hormari begira, eta protesta egiteko modu originalena aukeratu dute.



ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Gabonetan egin den erakusleiho lehiaketa Ehune dekorazioak irabazi du, eta goiko argazkian ikusi dezakezue irabazlearen meritua. Bigarren postua Otamendi harategiak jaso du eta Lore estetika zentroa izan da hirugarrena. Seguru epaileek sekulako buruhaustea izan zituztela irabazlea aukeratzeko.

HORRELA JOAN DAITEKE, BAI, KANPORA IKASTERA!

Jon Arzeluz Irlandara joan zen urtarrilaren lauan, eta egun batzuk lehenago, haren koadrilakoek sekulako afaria antolatu zioten. Gero, esan beharrik ez dago, parranda ederra egin zuten, eta halaxe harrapatu zituen eurek ateratako argazki honek. Horrela joan daiteke, bai, kanpora ikastera!



FUTBOLA

Mondrak bikain hasi du urtea, Tolosari 2-0 irabazi eta gero

Etxeko taldea erraz nagusitu zen, eta Tolosaldeak ezer gutxi erakutsi zuen

XABIER URZELAI

Urtea ondo hasia uste baino garrantzitsuagoa zen, eta arrasatearrak Gabonetan egin beharreko etxeko-lanak ondo ikasita bueltatu ziren futboleko egitera. Raulen mutilek lehen zati ona egin zuten, eta kanpotarrak baino gehiago zirela erakutsi zuten.

Goiko postuei begira ibiltzeko asko falta bada ere, Mondragoeko futbol taldeak pauso garrantzitsua egin zuen zapatuan Atxabalpen. Hasieratik ondo hasia oso garrantzitsua izaten da, eta etxekoek ez zuten denboraldi hasieran gertatu zena berriro gertatzerik gura. Esan bezala, ondo hasia beti da ona, eta sailkapenean aurretik doan taldeari irabaztea are hobea izaten da.

Zapatuan, Tolosako taldea izan zen etxekoaren arerio, baina ezin esan lan handirik eman zutenik. Partiduko lehenengo minutuetatik arrasatearrek nagusitasuna erakutsi zuten; ez zuten aurre hartu, baina denbora kontua besterik ez zen izan. Ruben Ruedak, falta jaurtiketa baten, bat



XABIER URZELAI

Ruben Ruedak bikain aprobetxatu zuen falta jaurtiketa.

eta hutsekoa egin zuen, eta emaitza horrekin erretiratu ziren aldagelatar.

BIGARREN ZATIAN EZER GUTXI

Kanpotarrek bigarren zatian gauzak aldatzeko beharra zeukaten, eta gehiago estutu bazuten ere, etxekoek, partiduari bikain eustez gain, bigarren gola egiteko ere aprobetxatu zuten. Asierrek egin zuen bigarrena, hari eginitako penaltian baloia sarera bidal-

tzen asmatu eta gero. Aipagarria izan zen zelaiaren erdialdean eginitako lana, Keixi, Xabi Mondra eta Argider ondo ibili ziren-eta.

Hiru puntu horiekin etxekoak bederatzigarren postuan daude, Tolosaldearekin berdinduta, baina goiko postuetan dauden taldeek hamar puntuko aldea daukate oraindik. Denboraldia luzea da, eta partidu asko geratzen dira ezer garbia ateratzeko. Poliki, baina seguru, urrunago beti.

ERRUGBIA

Arrasatek 10-15 irabazi zuen Irunen, eta istiluak izan ziren nagusi partiduan

Errugbia itxuraz gogorra bada ere, beste kirol askotan baino joko garbiagoa izaten dela dio esaera batek. Joan den asteburuan, baina, ez zen hori bete, eta bi taldeen arteko partidua bero-bero amaitu zen. Epaileak arauzko denbora baino bost minutu lehenago eman zuen bukatutzat partidua, badaezpada ere. Irungoek ur hotza jarrizieten arrasatearrei dutxatzeko, animuak epeltzeko-edo.

MENDIA

Besaide Mendi Elkartek mendi eski zeharkaldia antolatu du urtarril amaierarako

Arrasateko Besaide Mendi Elkartek aurten ere hainbat txango eta bidai antolatzeko asmoa du. Urtarrilaren 19ko eta 20ko asteburuan mendi eski zeharkaldia egiteko asmoa dute, eta interesatuok urtarrilaren 14an edo 15ean joan beharko dute Besaideren egoitzara izena ematera.

Mendi eski zeharkaldia Pirinioetan izango da, Pantikosan, zehatz esateko, eta izena ematerako orduan hogeita hamar euro ordaindu beharko dira.

KARATEA

Iban Galán arrasatearra Euskal Selektzioarekin Espainiako Txapelketan

Espainiako Txapelketa prestatzeko asmoz, karateko Euskal Selektzioak Arrasaten egingo du entrenamendua bihar goizean, Saioa gimnasioan. Euskal Herri osoko karatekak izango dira, eta arrasatear bat eurekin izango da.

Iban Galán karateka arrasatearra Euskal Selektzioarekin lehiatzeko hautatu dute, eta urtarrilaren 27an Guadalajaran izango den Espainiako Txapelketan parte hartuko du 17 urtetik beharokien. Karateka arrasatearrek gerriko beltza du, izan ere, zazpi urte zituenean hasi zen kirol hori praktikatzeko.

gazte ikastaroak



Sabel dantza

Iosune Albenizen eskutik

Urtarrilak 19 - otsailak 23

Larunbatetan, 16:00-18:00

Arrasate Musikalen

Matrikula: 30 Euro (5.000 PTA)

Ikasle eta langabeek

15 Euro (2.500 PTA)

Txalaparta

Ostiral (20:00-22:00) eta

larunbatetan (11:00-13:00)

Otsailaren 15etik maiatzaren 17ra

Musakolako Saloian

Hastapen eta sakontze mailak

Matrikula: 18 Euro (3.000 PTA)

12 Euro (2.000 PTA) ikasle eta

langabetuak.

Izen emateak:

Gazte Bulegoan 943 77 00 65



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Salla ■

SASKIBALOIA

Monseñor Milingo taldeak irabazi zuen Eugenio Ayala Memoriala

Zapatuan, Eugenioren omenez haren izena daraman txapelketako finala jokatu zen

XABIER URZELAI

Gabonetako saskibaloitxapelketa hemeretzigarren aldiz jokatu bada ere, aurtengoa berezia izan da, Eugenio Ayala zenaren izena jaso du-eta txapelketak. Finalera iritsi ziren taldeek ikuskizun aparta eskaini zuten, eta une hunkigarriak ere bizi izan ziren.

Monseñor Milingo eta Gaurdalako taldeak izan ziren zapatuan jokatu zen final bereziko finalistak. Finalistak bai, baina ez protagonistak, izan ere, Eugenio Ayala zena eta haren gurusoak izan ziren benetako protagonistak. Gabonetan jokatzen den saskibaloitxapelketak Eugenioren izena eramango du aurrerantzean, horrela, urtero-urtero Arrasate Saskibaloitaldeko jokalaria gogoan izango dute.

Aurtengo finalak berezia izan behar zuen, eta talde finalistak ezin aproposagoak izan ziren; izan ere, bi taldeko jokalaria Eugenioren hurbilekoak ziren.

FINAL PAREKATUA

Eugenioren lagunak izateaz gain,



JULEN IRIONDO

Monseñor Milingo eta Gaurdalako taldeetako jokalaria Eugenioren gurusoekin.

saskibaloian jokatzea ahaztu ez zaiela erakutsi zuten askok, eta hiruko saskiratzeetan batek baino gehiagok abilezia handia erakutsi zuten. Partidua benetan ikusgarria izan zen. Markagailuak ez zuten norgehiagoka osan talde baten alde egin, eta bietako bat aurreratzen bazen, besteak berehala erreakzionatu eta partidua berdintzea lortzen zuten.

Azkeneko segundoetan, markagailuak 72 eta 70 erakusten zue-

nean, Joakinek errebote bat hartu eta hirukoa jaurti zuen, eta zutik jarri zuen bat baino gehiago, baina baloiak ez zuten barrura sartu gura izan. Partiduaren ondoren, Eugenio Ayalaren gurusoek oroigarria jaso zuten, eta momentu hunkigarriak bezain politak bizi izan ziren.

Kenci Arrasatek bihar jokatuko du igoera faseko lehenengo partidua, Leioako Askartza taldearen kontra.

FOTOKIROLA



Unai Sarabiak 60 metroetan errekor berria

Arrasate Atletiko Taldeko atleta gaztea Gipuzkoako Txapelketan izan da, eta Mondragoeko errekorra hobetu egin du 60 metroetako lasterketan. 1993. urtean, Aitor Arnaizek zazpi segundo eta hamar ehunen behar izan zituen 60 metroak korritzeko, eta Unai Sarabiak ehunen bat gutxiago behar izan du proba betetzeko. Joan den urtean, hogeituroko atleta honek 7'12" egitea lortu zuen, eta orain, hiru ehunen gutxiago behar izan ditu. /XABIER URZELAI

Merkealdia

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Betrayer - Bikain Akademia	4-4
Usotz Potroak - Chap Dribling	2-7
Iriztu tab - Rayo Aldeano	7-5
Makanaki - Aurrera Bolie	3-1
Lasagabaster - Saukelu Scream	1-1
Maldifa's - Bazar Toki On	5-15
Txotx1 - Fraguél Gol	3-8
Goma2 - Estu ta Larri	7-3

B MULTZOA

Irati S.T.S - Abokajarro	5-4
Azkena YK - K.J Basati	7-2
Etxinai! - Etxerat	3-13
AKTA - AC Surcos	4-7
E.G.D - Bin Laden	2-7
I.K.P - Komando Alpagat	6-5
D.D.K - AT Celaya	2-7

PARTIDUAK

URTARRILAK 12, ZAPATUA. EPAILEAK

08:50: Full Duplex-Etxerat. Lasagabaster
10:00: Lasagabaster-Fraguel Gol. Etxerat
11:00: AT. Celaya - E.G.D. Fraguél Gol
12:00: Usotz P. - Aurrera Bolie. E.G.D
13:00: Azkena YK - AC Surcos. Usotz P.
14:00: AKTA - K. Alpagat. AC Surcos
15:00: IKP - DDK. AKTA
16:00: Iriztu - Saukelu Scream. IKP
17:00: Etxinai! - Bin Laden. Saukelu S.
18:00: Abokajarro - KJ Basati. Etxinai!
19:00: Goma2 - Txotx1. KJ Basati

URTARRILAK 13, DOMEKA

09:50: Makanaki - Bazar Toki On. Rayo Al.
11:00: Bikain A - Rayo Aldeano. Makanaki
12:00: Maldifa's - Estu ta Larri. Bikain akad
13:00: Betrayer - Chap Dribling. Maldifa's

Atsedena: Irati S.T.S

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Bikain Akademia	13	7
2. Chapime Dribling	13	7
3. Goma2	12	7
4. Iriztu Taberna	10	7
5. Aurrera Bolie	8	7
6. Betrayer	8	6
7. Rayo Aldeano	7	7
8. Usotz Potroak	6	6
9. Saukelu Scream	6	6
10. Fraguél Gol	5	7
11. Lasagabaster	5	7
12. Estu Ta Larri	4	6
13. Makanaki	4	6
14. Bazar Toki On	3	7
15. Maldifa's	2	6
16. Txotx	0	7

B MULTZOA

	P	J
1. Azkena You Know	14	7
2. Etxerat	14	7
3. Irati STS	10	6
4. AT Celaya	10	7
5. AC Surcos	9	6
6. D.D.K	7	6
7. Bin Laden	7	7
8. I.K.P.	6	6
9. Komando Alpagat	4	6
10. E.G.D.	4	6
11. KJ Basati	4	6
12. Abokajarro	2	7
13. Full Duplex	2	6
14. AKTA	2	7
15. Etxinai!	1	6

FOTOKIROLA



Debarroko Txapelketa abian

Arrasateko pilotariak beste txapelketa bat hasiko dute oraingo asteburuan. Mondragoetarrek Antzuolakoan kontra neurtu beharko dituzte indarrak Debarroko Txapelketako lehenengo partiduan. Finala martxoan izango da, baina etxekoan esanetan, txapelketa zaila izango da, talde sendoak daude-eta. Horrez gain, joan den zapatuan, Santamas Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren, eta hauek izan ziren irabazleak: alebinetan Bolinaga, gazte mailan Uribarren eta seniorretan Errasti. /X.U

Arrasate Xake Taldeak Baionaren kontra jokatuko du zapatuan

XABIER URZELAI

Gipuzkoako ligan lehenengo postuan dagoen talde arrasatearrak Baionaren kontra jokatuko du 2002ko lehenengo partidua. Iparraldeko taldea sailkapenean goiko postuetan dago, eta etxekoek jokalaritza titularrekin jokatuko dute; horrela, hortxe izango dira Ortega, Tornay, Hernando eta Ruiz. Etxeko taldeak 25 puntu eta erdi

ditu, eta bigarren sailkatua bost puntu eta erdira dago; hortaz, arrasatearrek kontuan hartzeko aldea daukatela esan dezakegu. Ondorengo bi asteburuetan Baiona eta Gros taldeen aurka emaitza onak lortzen baditu, Arrasate Xake Taldea Euskadi mailako ligan izango da hurrengo urtean. Zorte apur batekin etxeko xakelariak lokal berriak jokatuko dute urteko lehenengo partidua. Ea lor-

tzen duten.

SANTAMASEN NAHI BAINO OKERRAK
Bestalde, urtero jokatzen den Santamasetako Xake Txapelketan Arrasateko xakelariak ez ziren fin ibili.

Guztira, hamar talde izan ziren, eta maila altua izan bazen ere, etxekoak seigarren geratu ziren. Ermuko xakelariak izan ziren irabazleak.

LASAITASUNA NAGUSI

URTE BERRIA BEHAR DEN BEZALA HASI

Orain arte izan diren partiduetan ez da arazo handirik izan, nahiz eta partiduren baten edo bestean beroaldiren bat izan den. Hala ere, urtea ondo hastea garrantzitsua izaten da, eta txapelketa ondo hastea ere ez da txarto etortzen. Ea oraingo asteburuko jardunaldia, behintzat, lasaia izaten den.

ZALDIBARKO ANTOLAKUNTZA EUSKAL SELEKZIOAREKIN

Urtero moduan, Euskal Selektzioaren partidua Gabonetako protagonistetako bat izan da, kirol arloan bai, behintzat, eta Zaldibarko antolakuntzak ez zuen partidu hori galduta izan. Arratsaldeko lehenengo orduan autobusa hartu eta Bilborantz abiatu ziren antolakuntzakoak, eta han partiduez gozatzeko aukera izan zuten.

GORA ETA BEHERA

B MULTZOA

Datu estatistiko bat besterik ez bada ere, orain arte jokatutako partiduetan, A multzoan guztira 444 gol izan dira, eta B multzoan 475 gol. B multzoan, gainera, talde bat gutxiago dago; hortaz, atera kontuak.

ORDAINDU EZ DUTENAK

Zaldibarko antolatzaileen esanetan, talde batek oraindik ez du txapelketan parte hartzeko ordaindu behar zen dirua jarri. Talde horrek dagoeneko denbora nahikotxo izan du ordaintzeko, hortaz...

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Ondarru - Mondra
Erregionala. Zapatua. 16:30. Ondarroan.
Koxkas - Arrasate
Ohorezko gazteak. Zapatua. 17:15. Kanpoan.
Arrasate - Mariño
2. gazteak. Zapatua. 15:45. Atxabalpen.
Hernani - Arrasate
Infantilak. Zapatua. 11:30. Hernanin.
Arrasate - Tolosa
Kadeteak. Domekan. 11:00. Atxabalpen.
Neskak: atsedena izango dute

SASKIBALOA

Askartza - Kenci Arrasate
Seniorrak. Zapatua. 18:00. Leioan
Arrasate - Elgoibar ST
23 urte azpik. Zapatua. 16:00. Musakolan

Ordizia - Arrasate

Junior mut. Zapatua. 12:15. Musakolan.
Arrasate - Eskoriatza
Junior neska. Zapatua. 10:00. Musakolan.
Grox Xake - Arrasate
Kadeteak. Zapatua. 16:00. Kanpoan.

ESKUBALOA

Arrasate Almen - Donibane
1. seniorrak. Domekan. 12:00. Iturripen.
Loiola - Arrasate
2. seniorrak. Domeka. 12:00. Donostian.

ERRUGBIA

Arrasate - Arratiko
Seniorrak. Zapatua. 16:00. Garagartzan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Erregionala: Mondra - Tolosaldea	2-0
Neskak: Aloña Mendi - Arrasate	5-0
Ohor. gazte maila: Arrasate - Martutene	4-2
2. gazteak: Amarrerri - Arrasate	3-0
Ohorezko kadeteak: Hernani - Arrasate	5-0
Infantilak: Aitzgorri - Arrasate	5-0

SASKIBALOA

Eugenio Ayala memoriale	
Monseñor Millingo - Gaurdalako	72-70

PILOTA

Santamas Txapelketako finala
Alebinak:
Bolinaga 18 - Fernandez 10
Gazteak:
Uribarren 18 - Zuazua 11
Seniorrak:
Errasti 18 - Lazkano 5

Eskoriatzan salgai partzelak eta etxebizitza adosatutak

Promotoreak baimendutako agentzia bakarra

Udalatx Inmobiliaria

Tel.: 943 79 59 99
Faxa: 943 79 92 00
Maalako Errabala, 27 behe-ekz. ARRASATE

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6 (Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebendun hizkiak

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiako osagarriak

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78

GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



RKUZ ARABIA ETORBIDEA 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA

ETXE MOBEL ARABIA ETORBIDEA 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

RKUZ MITARTE 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**
ARETXABAETA

RKUZ ASUNCION, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA **expert**

ELKARRIZKETA

GAIZKA MENA/MARRAZKILARIA

“Txikitan, aita marrazten ikusten nuen, eta hark animatu ninduen”

IKER BARANDIARAN

Gaizkak marrazki erakusketa dauka ikusgai Gaztetxean urtarrilaren 19ra arte. Bere kasa ikasi du, eta zuri-beltzeko marrazki surrealista geometrikoak egiten ditu. Aurrez, poesia liburuxka baten marrazkiak argitaratu zituen.

Noiz hasi zinen marrazten? Oso txikitan? Eta zein teknika erabiltzen duzu?

Betidanik ikusi dut aita marrazten, aitik marrazteko zaletasun handia izan duelako. Gogoan daukat txikitan aitari margolanak egiten laguntzen niola, belarra margotzen, eta abar... Azkenean, hura ikusita animatu egin nintzen eta horretarako denbora hartzen hasi nintzen. Lehenengo, eskolan ibili nintzen, gero eskola utzi nuenean etxean neure kasa hasi nintzen inongo irakasle barik. Batez ere, *plumilla*-rekin, hau da, errotuladore beltz eta zuriekin, egiten dut lan. Hori dut gustuko.

Erakusketan ikusitakoaren arabera, marrazkiak nahiko abstraktuak dira. Zelan definituko zenituzke?

Nahiko surrealista direla esango nuke. Azken baten, irteetan zaizkidan gauzak dira, ez diot buelta larregirik ematen.

Eta zein gaitan oinarritzen zara, batez ere?

Galdetzen didatenean, nire buruko fotokopiak direla esaten dut. Marrazten hasi eta irteten dena egiten dut. Batzuek esanahi zehatza izan dezakete eta beste batzuk, aldiz, irizpide estetikoak jarraituz egiten ditut.

Zelan bururatu zitzaizuen Gaztetxean zure marrazkiak erakusgai jartzeko ideia?

Lagun batek, Josu Arteagak, animatu eta dena prestatzen lagundu dit. Erakusgai ditudan marrazkiak DIN-A3 tamainan egin ditut. Aitak orri mordo bat utzi zizkidan eta horietan hari naiz lanean, beste barik.

Gaztetxean zabaldutako erakusketa zure lehenengo jendaurrekoa izan da? Zein harrera izango duela espero duzue?

Bai, erakusgai jarri ditudan lehenengo aldia da. Ea jendeak zer dioen. Beti beldur izan naiz jendeak zer iritzi izango ote duen, ez daukat inolako teknirik eta.

Aurrez poesia liburuxka baten zure marrazkiak sartu zenituen, ezta?

Bai, duela hilabete batzuk, Josu Arteagak argitaratutako poema liburuxka baterako marrazkiak eskatu zizkidan eta



IKER BARANDIARAN

“Nire lanak erakusgai jartzen ditudan lehenengo aldia da. Ea jendeak zer dioen”

hantxe sartu genituen. Han sartu nituen marrazkiak amets eta amesgaiztoekin lotuta zeuden.

Gaztetxean marrazki gutxi batzuk batu badituzu ere, etxean pilo bat dituzula kontatu didate...

Bai, egia esan, etxean dagoneko asko daukat. Nahiko alferria naiz, baina urteak pasatu ahala pilatu egin zaizkit. Hala ere, Gaztetxean hogeita bat marrazki ditut erakusgai.

Olioarekin ere esperimentatzen hasi zaretela kontatu didate...

Bai, azkenaldian akrilikoenkin probak egiten hasi naiz, baina nire burua oso mugatuta ikusten dut. Jende guztiak esaten dit

“Beltzez janzen naizela eta zuri-beltzean marrazten dudala esaten didate lagun askok”

beltzez janzen naizela eta zuri-beltzean marrazten dudala. Tira!

Marrazkigintza zure zaletasun handiena bada ere, beste batzuk ere badauzkazu, ezta?

Askok ditut, lanak egiten uzten dizkidanak. Olerkiak idazten ditut. Perkusioa ere gustuko dut, baina une honetan El Hombre que dijo Hockey taldean batera jotzen nabil. Ez dugu inoiz zuzenean jo, prestaketa lanetan gabiltza oraindik.

Zer asmo daukazu orain?

Denboraren arabera, marrazten jarraitu, eta ikusiko dugu zer irteten den. Beste liburuxkaren baten nire marrazkiak berriro sartzea gustatuko litzaidake.

KULTURAPILULAK

Lausardi Koru Sinfonikoak “Horra Mari” lana eskainiko du Amaia Udal Antzokian zapatuan

Lausardi Koru sinfonikoak *Horra Mari* izeneko gabon ipuina eskainiko du urtarrilaren 12an, zapatuan, Amaia Udal Antzokian, arratsaldeko 19:00etan. Lausardiko zuzendariak, David Azurtzak, Goikobaluko zuzendariak, Rakel Murgiondok, koordinatutako horretan ibarreko 215 gaztek hartuko dute parte. Lan hori David Azurtzak idatzi zuen *Horra Mari Domingi* gabon-kanta ezaguan dago oinarrituta. Nabarmendu beharra dago, bestalde, inoiz baino jende gehiagok hartu duela parte lan horretan.

Jose Manuel Jodar izango da Al Andalus elkarteko presidentea aurrerantzean

Al Andalus elkarteak presidentea estreinatuko du datorren domekan egingo duen batzarrean. Izan ere, azken 12 urteetan, elkarteak jaiotzen zuten gaur arte, Rafa Gómez izan da presidentea. Rafa Gómezek kargua uztea erabaki du, eta 51 urteko Jose Manuel Jodar aurrerantzean satearrari utziko dio lekua. Horrez gain, batzar erdia ere aldatuko dute. Apustu handia, hortaz, elkarte garrantzitsu horretatik gidaritza hartzea.

“El Piloto Suicida” liburua aurkeztuko du Oskar Beorlegik domekan Gaztetxean

Prensa musikalean, batez ere, ezagun den Oskar Beorlegi iruindarrak *El Piloto Suicida. Manual de supervivencia para andar por la vida* liburua aurkeztuko du Gaztetxean datorren domekan, arratsaldeko 19:00etan.

Beorlegi iruindarra da, 34 urte ditu, eta liburuan *El Piloto Suicida* ezizenarekin urteetan zehar *Egin-en*, *Borraska* ziberzinean eta *El Tubo* aldizkarian argitaratutako testuak batu ditu. Rock-and-rolla, ironia eta ikuspuntu garrantzitsuak uztartzen ditu.



Txikienek ezin hobeto igarotzen dituzte orduak Txikilandia haur parkean.

Arrakasta izan du aurten ere Txikilandia haur parkeak

IKER BARANDIARAN

Txatxilipurdik urtero antolatzen duen Txikilandia haur jolasparkeak eman du berea aurtengoz. Urtarrilaren 2tik 5era arte, biak barne, Arrasateko zein inguruetako herrietako umeek eta gurasoek izan dute nora jo.

Txatxilipurdiko partaideek azaldutakoaren arabera, “eguneko bostehun bat ume pasatu dira handik, eta lehenengo egunean askoz gehiago”. Ez da harritzekoa, eskola handia dute eta Txatxilikoek halakoak antolatzen. Eta aurten ere, berrogeita

hamar lagun inguru ibili dira Musakolako kiroldegian prestatutako jolasparkean lanean.

Txatxilipurdikoek diotenez, onura handia egin diete kiroldegia beraren berrikuntzari. “Askok beroagoa da, lurra hotza to egokituta dago eta eskertzen da”. Bestalde, aurten ere inoiz dituzte berritasunak. Hain zuzen ere, txikitxoendako Bilin-Bolin ka, herri kirolak, mahai jolasak eta bestelakoak. Gauza bat berririk faltan: “Guraso askok eskertzen dute eurek ere ordu bereko gutxienez jolasteko aukera eskaintzea”.

E, TXO!

GAZTEKONTUAK/ ESKU-TELEFONOAK

Esku-telefonoak gazte askoren ezinbesteko lagun berriak dira

IKER BARANDIARAN

Gure arteko gizarte zati handi batek poltsikokoak erabiltzen baditu ere, gazteen artean are nabariagoa da poltsikoko telefonoen edo segapotoen erabilera sutua. Iraganeko tamagochi-en pare jarri dira.

Berba egiteaz gain, mezuak bidali, jolastu, interneten sartu, eta abar, egin daiteke

Geroago eta ohikoagoa da gazte txoek gurasoei poltsikoko telefonoa eskatzea. Ia lagun guztiek dituzte eta euren artean komunikatzeko ezinbestekoak ei dira.

BERBA EGITEA BAINO GEHIAGO

Telefonoz berba egiteaz gain, hainbat eta hainbat zerbitzu eskaintzen dizkiete ditzosozko aparatuek, betiere, aparatuen eta ordaindutakoaren araber...

bera: idatzizko mezuak, irudiak, jokoak, kalkulagailua, eurokontbertsorea, internet, eta abar...

Dezente ordaindu beharra dago, jakina, eta prezioak ez dira batere merkeak. Hainbat gauza dituen segapotoa eskuratu gura izanez gero, diru mordoxka ordaindu beharra dago, eta gero,



IKER BARANDIARAN

Gaur egun, poltsikokoak gure egunerokotasunean guztiz sartuta daude.

konexioaren eta deiaren iraupenaren arabera, gehiago oraindik. Zerbitzuak ematen ditu eta prak-

tikoa ere izan daiteke, baina diru gastua da. Gainera, ohituratik premiazkoa izatera pasa daiteke.

LOTSABARIK/ Brian De Inda

"Taula gainera igotzeak lotsatu egiten nau"

IKER BARANDIARAN

Eskola-graduatu titulua ateratzen dihardu, baina horri baino denbora luzeagoa eskaintzen die lagunekin egoteari eta musikari. Arkada Sozial taldeko gitarrista da. Lotsa handirik ez ei dauka.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Medikua, suhiltzailea... Oso argi neukan. Orain, pentsatuz gero, medikua izateak atzera botatzen nau, jendea hain gaizki ikustek. Eta suhiltzaile izateko, proba asko eta gogorak daude. Orain, ikusi behar!

• Zelan ikusten duzu zure

burua hemendik 20 urtera?

Egia esanda ez dut ikusten. Etxe baten, nire konitu, lanean, eta espero dut bakarrik ez egotea.

• Zein da, zure ustez, adin ideala?

Hamazazpi edo hamazortzi urte. Ardurarik ez... Horrela bai bizi daiteke.

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Musikari eta lagunei, batez ere. Badira urte batzuk Arkada Sozial taldeko gitarrista naizela, eta orain beste talde bat ere badut.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Jende askoren aurrean berba egiteak. Eta taula gainera igotzeak ere, bigarren abestirako gustura egoten banaiz ere.

• Eta zerk arduratzen zaitu gehien?

Zer-nolako Gaztetxea egingo duten eta zer edukiko dugun gazteek etorkizunean.

• Zer falta zaio Arrasateri gazteendako?

Lokalak, bai inori trabarik egin barik entseatzeko eta bai egoteko ere.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Begiak-edo.

• Arrasaten zaila da ligatzea?

Ez dakit. Gutxitxo ligatzen da, baina, hala ere, gura duenak lortzen du.

• Jendeari zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Batez ere, begiei eta ahoari.



ADINA: 18 urte • IKASKETAK: Eskola-graduatu ateratzen dihardut. • ZALETASUNAK: Musika eta kirola. • LIBURU BAT: Gutxi irakurtzen dut. • FILM BAT: 'American History X' • MUSIKA TALDEA: Hellcopters, MC5, Guns N'Roses... • KIROL TALDEA: Reala.

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

BEHEKOPELUKERIXATIK

Manu Romero

JADE PELUKERIXAKUE

XABIER URZELAI

Hogeita sei urteko gazte honek oin dala hiru urte zabaldu euen pelukerixie, Maribelekin eta Cristinakin batera. Ikasketak pelukero izeteko egin zittuen, eta estensiñuek egitten eta estilismue be ikasi euen. Mari-bel Manuren emaztie da, eta lan Mondragoen egitten badaue be, bizi, Bergaran bizi die.

Amets bat?

Hiru pisuko pelukerixa bat eukittie.

Amets txar bat?

Migrañie eukittie.

Egin dozun azken biajie?

Greziara, oin dala urte bi.

Txartel horixe, zeñei?

Jente faltsuari.

Eta gorrixek?

Hori be haretxei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

Por qué le llaman amor cuando quiere decir sexo / Ez dot larregi irakurten / Enigma.

Drogak legalizauko zittukie?

Ez.

Eta prostituziñue?

Bizi izeteko biherrezkue bada, bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Oin, txikiteue; lehen; diskotekak.

Ze gustetan jatzu Mondragoetik?

Ondiokan ez dauela oso esplotaute.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Jentie asteburuetan kanpora jueten da parrandie egittera. Hori ez pasetako, Mondragoen lokal gehixago jarriko nittuke.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Batek daki!

Bizi izetera hiri batera jutekotan, nora?

Ibizara juengo nitzake, nahiz eta hirixe ez izen.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat.

De-ja-vú. Diseñatzaile bat da.



"Rastak euki ezkerro, ez da komeni ulie askotan garbiketie. Hala be, produkto ezberdiñek dagoz"

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Rosi de Palma.

Telebisiñoko programa bat?

Eta irratikue?

El Informal / Los 40 Principales.

Zertan gastauko zeunke dirue?

Erropatan.

Pelukero izengo ez bazitze, ze izengo zitzake?

Erropa diseñatzaile. Modelue izetie zan neure ametsa, baiñe txiki geratu nitzen.

Rasta batzuk egitteko zenbat ordaindu biher da?

180 euro (30 mille pezeta).

Eta gero ulie garbiketako?

"Nagusixek eskaketan daue beste pelukerixetan egin ez dutziena egitteko: itxurie guztiz aldatu"

Asko garbiketie ez da ona, baiñe produkto ezberdiñek dagoz. Gaiñera, bustitte dauenien sekulako pisue hartzen dau uliek.

Zeuri zeñek mozten dotzu ulie?

Emaztie.

Gaur egun, gaztie ze eskaketan daue?

Estensiñuek, gehixenbat.

Eta nagusixek?

Gazte itxurie emutie, itxurie aldaketie.

Koloretan asko gastetan dozue?

Bai, asko.

Lehen, pelukeruek bizarra be kentzen euen.

Neuk, behintzet, sekula be ez.

NIREBIDAIAHURA / Imanol Exposito

Alaskara / 1999ko abuztu

Imanol bidaiazale amorratu da, eta munduan dau den parajeak bisitatzea biziki atsegin du. Horretarako aukerarik ez duenean, irratian egiten duen bidaien inguruko saiok zelanbait bidaia baten daga ela sentiarazten dio.

Nahiko lan izan dugu zein bidaiez mintzatu behar du erabakitze, baina azkenean Alaskan egon zeneke aukeratu du. Mondragoetik bakarrik joan zen, baina bidaia antolatua zenez, Estatuko beste hamabi lagunekin joan zen. Madril, Amsterdam, Boston, Minneapolis eta azkenean Anchorage (Alaska). Imanol berehalaxe konturatu zen Alaskako paisaia Kanadakoaren oso antzerakoa zela.

Alaska Espainiako Estatua baino bi aldiz handiagoa da, eta Imanolek 2.500 kilometro egiteko aukera izan zuen. Bidaia horretan Mc Kinley parke nazionala bisitatzeko aukera izan zuen, eta, besteak beste, Fairback, Dawson city, Valdez edo Whitehorse herrietan izan zen. Bidaia horretatik gauza bi geratu zaizkio barren-barrenean: batetik, Dawson City herria (*Urrezko herria*), eta bestetik, Whitehorse-n ikusi zuen aurora boreala. Dawson City-k daukan iraganagatik txundituta geratu zen Imanol. *Urrearen sukarra* izan zenean, jende asko ahalegindu zen herri hori eraikita dagoen lekuraino joaten, baina ez zen lan erraza. Gaur egun ere, errepide bakarra dago asfaltatuta, eta oso jende gutxi bizi da han. Inidgenek neguan ehizan egiten dute, baina uda partean herri hartara jaisten dira, animalia gutxi izaten da-eta mezedietan.

Bitxikerietarako astia ere izan zuen; izan ere, milaka kilometrorra egonda ere, Valdez-en mondragoetar batek egin zuen topo.


XABIER URZELAI



Imanol eta bi lagun, Valdez inguruan dagoen glaziarrean.

"Dawson City asko gustatu zitzaidan, daukan iraganagatik"

"Alaskan mendira joatea ez da txantxetarako gauza"



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99



Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

ZAHARRAREN ETXETIK



BARCELO

Hirugarren adinekoek bainuetxeetan egonaldiak egiteko aukera polita dute programa horren bitartez.

Hirugarren adinekoendako bainuetxe programa abian dago

IKER BARANDIARAN

IMSERSOK abian jarri du egunotan hirugarren adinekoak bainuetxeetara joateko gizarte programa berria. Horren bitartez, adinduek Espainiako Estatuko zenbait bainuetxetan egun batzuk igarotzeko aukera izango dute, salneurri merkeen bitartez.

Hirugarren adinekoen bainuetxeetako egonaldi horietan mantenu osoko ostatua eta bainuetxeetako tratamendu ugari sartzen dira: hain zuzen ere, azterketa medikoa, bainuetxeko ohiko tratamendua eta aseguru turistikoa, beste batzuen artean.

Izatez, txanda bakoitzeko egonaldia hamabost egun ingurukoa izango da eta parte hartu ahal izateko, pentsionista izan beharra dago, bai erretiratu izanagatik edo elbarritasuna edukitzeagatik. Bestalde, alarguna izateagatik pentsionista direnek 60 urte baino gehiago izan beharko dituzte derrigorrez. Beste baldintza garrantzitsu bat da interesatua bere kasa baliatzeko gai izatea.

Bainuetxeetara joateko programaren zerrendan sartzeko, gaixotasun ak ere kontuan hartzen dituzte, jakina. Izan ere, gaixotasun larriren bat edo kutsakorra izan daitekeena edukiz gero, ezin izango dute bainuetxe programa horretan parte hartu. Are gutxiago, interesatuak bainue-

txeetako tratamenduak kontraindikatuak baditu.

GIZARTE ZERBITZUEI ESKAERA EGIN

Programa horretan parte hartu gura duten interesatuek Udaltxeko Gizarte Zerbitzuetara jo beharko dute. Otsail eta abuztu artean joan gura badute, urtarriaren 20aren aurretik eman beharko dute izena. Irailtik abendura artean joan gura izanez gero, berriz, maiatzaren 16a baino lehenago eman beharko dute izena.

Horren inguruko beste edozein informazio behar izanez gero, lasai jo daiteke Udaletxeko Gizarte Zerbitzura, eta han gustura argituko dituzte kezkek edo zalantzak.

Bestalde, derrigorrezkoa da honako agiriak aurkeztea: Nork Agiriaren fotokopia, Gizarte Segurantzako zenbakia eta diru sarreraren kopurua ziurtatzen duen agiria.

Eskaria egiten duenak daukan diru sarrerak kontuan hartuko dira, baita aurrez programan parte hartu duen edo ez.

Dokumentazioa aurkeztu behar

Programan parte hartzeko dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Naren fotokopia.
- Gizarte Segurantzako zenbakia.
- Eskaria egiten duenaren diru sarrerak ziurtatzen dituen agiria.
- Otsail eta abuztu artean joateko, urtarrilaren 20a baino lehen.
- Irail eta abendu artean joateko, maiatzaren 16a baino lehen.



Iturbide egoitzan jaiotza jarri zuten


Iturbide egoitzan, egoitzaren sarreran, hain justu, jaiotza dotorea jarri zuten Gabonetan. Hala, kanpotik hurreratu zirenei ongietorria egin eta barruan Gabon giro nabarmenagoa jaretzea lortu zuten; hori zen, behintzat, helburua. Horrez gain, Iturbide egoitzan bizi diren adinduek erregaluak jaso zituzten. Itxura baten, ondo pasatu dituzte jaiak.

ZAHARRENA HOTIK

Joseba Uribetxebarria

IGELTSEROA IZANDAKOA

Joseba Uribetxebarria 1912ko azaroan jaio zen, Garibaiko etxe handi baten. Hamalau anai-arrebatatik, mutiletan zaharrena da hura.



Gerran hamaika pasarte bizi izan zenituen, ezta?

Amaiur batailoi abertzalean borrokan ibili eta Laredon harrapatu gintuzten. Gero, langile batailoian Espainiako Estatuan ibili ginen zubiak eraikitzen. Frontera eramanez gura gintuzten euren alde borrokatzeko, baina ez zuten lortu. 1940. urtean askatu gintuzten.

Herrian oso ezagun egin zinen zure igeltsero lanagatik...

Nik ofizioa gutxi ikasituen; batez ere, biltegian lanean eta Ford baten Bilbora eta

Donostiara material bila bueltaka ibiltzen nintzen. Horrela ibili nintzen 73 urterekin erretiratu nintzen arte. Orain, oso ondo bizi naiz, baina gaztetan ere primeran ibili nintzen, ezin naiz kexatu: pilotan, futboleko mendian, nesketan... 50 urte nituela ezkondu nintzen, eta alaba bi dauzkat.

Yagoba
Larrañaga Oregi
ARKITEKTO TEKNIKOAK

Obra zuzendaritza.

Eraberritze eta birgaitze proiektuak.

Informe teknikoak eta jarduera espedienteak.

Arrasate pasealekua 13, behea
Tel./Faxa: 943 79 26 88 ARRASATE

OSORIK
PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65



ARRASATE
Haizea Azurmendi
Urtarrilaren 4an, 16 urte.
Zorionak, etxekoan partetik.



ARRASATE
Jon Berasaluze
Urtarrilaren 15ean, 15 urte.
Zorionak, Arrasateko aitaitaren eta amamaren partetik.




ARRASATE
Nerea Castillo
Urtarrilaren 12an, 21 urte.
Zorionak, lehengusuen partetik.



ARRASATE
Elena Elorza
Urtarrilaren 7an, 31 urte.
Zorionak, potxola! Lehengusuak.




ARRASATE
Amaia Azkargorta
Urtarrilaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak, lagunenen partetik.



ARRASATE
Jesus Azkargorta
Urtarrilaren 13an, urtebetetzea. Zorionak, lagunenen partetik.



ARRASATE
Luis Villar
Urtarrilaren 7an, urtebetetzea. Zorionak, etxekoan partetik.



ARRASATE
Jesus Telleria
Urtarrilaren 6an, 65 urte.
Zorionak, gazteluz emaztea, Pilar.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera argazki batekin eta utzi gure esku! Otorora lizentziaduna, 31.

Hurrengo zenbakian **urtarrilaren 12tik urtarrilaren 18ra** bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.

Argazkiak martitzenera arte jasoko ditugu ARRASATE PRESSko egoitzan.

BABESLEA

Juan Manuel Berrueta

ARGAZKILARIA



- Estudioa
- Erreportajeak
- Bideoa
- Argazkizaleen txokoa

Iturriotz kalea, 24. ARRASATE. Tel.: 943 79 19 71 / 658 75 58 18.

SANTAMASAK 2001

ARRASATEKO BASERRIEN ANTZINAKO TRESNEN ERAKUSKETA (2. ALDIA)

SANTAMAS KOMISIÑUEn partez, eskerrik beruenak hemen aitaketan dien baserrixei, erakusketie egiteko laguntza haundixe emun doskuelako:

- | | |
|------------------|----------------|
| Oleaga | Imendi |
| Gorostiza | Olandixo |
| Telleria | Lazaruena |
| Goiru | Ortuzar |
| Goiru-azpi | Emaldi |
| Ibarreta-gain | Aizpekoa |
| Mendi-gain | Perikiñena |
| Baztergain-azpi | Barrutia |
| Markulete | Biziena |
| Larratxu | Etxeberri |
| Arteaga | Kobateko etxea |
| Enuzketa-aldekoa | Zabaleta |
| Mañeri | Otamendi |
| Sanjurji | Uribarren |
| Arrua | Bioso |

Gida 2002

Zure
postontzian
aurkituko
duzu laster...

Arrasate
Aretxabaleta
Eskoriatza
Leintz Gatzaga
Aramaio

Txirritola

ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 11 / 11. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna z/g 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Abiadura Handiko Trenaren kontrako ekitaldiak izan dira

UBANE MADERA

Abiadura Handiko Trenaren kontrako ekitaldiak egin dituzte oraingo astean Aramaion. Batetik, tren horrek herrian izango duen eragina adierazten duten panel informatiboak ipini dituzte herrian, eta bestetik, eguaztenean, tren horren gaineko hitzaldia izan zen Kultura Etxean.

Hauek izan ziren hitzaldian: Maite Aristegi, EHNE sindikatuko bozeramailea; Alberto Frias,

Lurra taldeko ordezkaria; eta Niko Moreno, Elorrioko alkatea eta AHT Elkarlanean taldeko ordezkaria. Abiadura Handiko Trenak eragingo dituen kalteak salatu zituzten Kultura Etxean.

Hitzaldiaz gain, tren horrek Aramaion eragingo dituen kalteak ere salatu ditu Aramaio AHTren aurkako taldeak. Horretarako, Ibarra informazioa emateko zenbait panel ipini dituzte. Salatu dute, adibidez, "7.000.000 m² mendi, zelai eta baserri desagertuko direla betiko", trenak 280 kilometro orduko abiada izan-


go duela eta horrek ibilbide berezia eskatzen duela, "bat ez datorrena Euskal Herri menditsua-rekin, kalte handiak eraginaz". Horrekin batera, besteak beste, sortuko diren zabortegiak, lur eta ur mugimenduak ere salatu dituzte, baita animaliei egingo dien kaltea ere.

Aramaio Udalak alegazioak aurkeztu zizkion AHTren aurreproiektuari. Udalaren ustez, lan handi horri buruzko xehetasun gutxiegi ematen zituzten. Baina alegazio horiek ez zituzten onartu.

NONDIK NORA


Eskoriatzatik etorriko da Aramaio Abiadura Handiko Trena. Bost kilometroko ibilbidea izango du, tartean 530 metroko zubia izango du trenak eta 3.280 metroko tunela.

Eskoriatzako Mazmela auzotik sartuko da Aramaio, lur azpitik. Orain arteko proiektuaren arabera, Asensio eta San Adrian mendien artean pasatuko da. Gero, Zabola auzoaren eskuinaldetik joko du, eta Bolinburu ingurura irtengo da. Sarturten batzuk egingo ditu handik aurrera, Kataiako bidegurutzeraino. Han zubia eraikiko dute eta berriro lur azpian sartuko da, Cuatrovientos azpitik.



UBANE MADERA

Abiadura Handiko Trenak eragingo dituen kalteak salatu dituzte.



Gazte lokalak erabiltzeko irizpideak

Herriko gazteek estreinatu dituzte dagoeneko Kultura Etxean euren egokitutako lokalak. Hiru dira, eta denetarik dute han: telebista, futbolina, billarra... Orain, gazte lokal horiek erabiltzeko, Udalak erabakitako kontratua sinatzea besterik ez zale falta. Kontratua urtebeterako izango da, eta gazte lokalen erabilera zehazten duten irizpideak jasotzen ditu. Adibidez, lokalen garbiketa gazteen esku geratzen da, eta asteburuetan eta jaiegunetan ere komunak garbitu beharko dituzte; fidantza ordainduko dute; ezin dute erre eta ezin dute hormarik zulatu.

ATREBENTZIAEZPADA/ Zelan euroekin? Gauzak lehen baino garestiago daude?



MIKEL ALTUNA
Ikaslea

Nahiko ondo konpontzen naiz euroekin, baina zein prezio den arabera, batzuetan txarto. Gauza batzuk lehen baino garestiagoak dira, beste batzuk ez.



MIKEL MENDIKUTE
Ikaslea

Ez dut euroa probatu, baina uste dut gauza batzuek gehiago balioko dutela eta beste batzuek ez. Paga ematen didatenean hasiko naiz euroa erabiltzen.



JON ANDONI ASPE
Langilea

Orain arte ez dut igarri biribiltzen dutenik; adibidez, 1.300 balio badu, justu-justu azkeneko zentimoraino agertzen da, nire kasuan, behintzat.



AMAIA URIARTE
Ikaslea

Normal nabil euroekin, baina uste dut prezio batzuk asko igo direla. Orokorrean igarri dut: adibidez, litxarrerietan, Eroskin...



LUCIA ASTONDOA
Etxekoandrea

Oraindik ez diot antzik ere hartu euroari, azkeneko pezetekin nabil, baina beldur naiz ez ote naizen zoraturako. Biri-billetarekin prezioak igoko dituzte.

LABUR

Zentsuko datuak berritzeko lanak bukatu dituzte

Martitzenean bukatu zituzten Aramaio zentsua berritzeko lanak; hain justu, kaleko lanak edo herritarren datu bilketak. Nekane Arana oletarra ibili da Aramaion kaleko lan hori egiten. Eta, eskerrak eman gura ditzkie, oro har, herritar guztiak eman dioten harreragatik eta bereziki, Udaleko langileek eta auzo-alkateei, egin beharrek lana asko erraztu diotela. Orain, jasotako datu guztiak estatistikak egingo ditu, besteak beste, Estatistikaren Institutu Nazionalak.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

LABUR

2002KO TELEFONOEN GIDA
Datorren astetik aurrera, 2002. urteko telefonoen gida hasiko dira banatzen. Goiena Komunikabideen ardurapean, 12.300 gida banatuko dituzte Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Gatzagan eta Aramaion. Esan bezala, datorren astean hasiko dira banatzen, baina, jakina, leku batzuetara beste batzuetara baino geroago iritsiko da. Edozelan ere, arazoren bat izanez gero, deitu 943 712391 telefono zenbakira.

ARETO FUTBOLA

Bihar, zapatua, gizonezko kadeteek Gasteizko El Campillo-ren kontra jokatuko dute, 10:30ean; eta emakumezkoek Legutiorren kontra, 11:30ean, Aramaio-ko kiroldegian.

BERTSO SAIO ARRAKASTASUA


Joan den asteko barikuan, bertso jaialdia izan zen Kultura Etxean. Manex Agirre, Unai Iturriaga eta Xabier Silveira aritu ziren, Jokin Labaien mondragoe-tarrarekin eta Manex Agirre aramaioarrarekin batera. 140 lagun batu ziren.

KULTURA

Gizarte Segurantzako pentsiodunendako bainuetxeetara bidaiak

Gizarte Segurantzako pentsiodunak bainuetxeetara joateko izena emateko epea zabalik dago. Interesá duenak Udalean eman beharko du izena, betiere, honako baldintza hauek betez gero: erretiro eta ezintasuna dela-eta pentsiodun direnek baldintza barik joateko aukera izango dute. Eta alarguntzagatik edo bestelakoengatik pentsiodunek 60 urte-tik gora izan beharko dituzte.

Eskaerak egiteko, gizarte laguntzailearen Udaletxeko bulegora jo beharko da, eguaztenetan, goizeko 12:00etatik 14:00etara bitartean. Otsailetik abuztura bitartean joan gura dutenek urtarrilaren 20a baino lehen egin beharko dute eskaera. Irailetik abendura bitartean joan gura dutenek, berriz, maiatzaren 16a baino lehen.



BOTEPRONTOAN/ Unai Uribarren · Pilotaria

“Onenek jokatu beharko lukete, ez enpresek erabakitakoek”

Unai Uribarren aramaioarrrak eta Mikel gasteiztarrrak Arabako amateur mailako pilota txapelketa irabazi zuten abenduan, Gereño eta Martínez pilotariei finalean 22-21 irabazita. Gu Unai Uribarrenekin izan gara. Etxaguen auzoko Uribarren baserriko 27 urteko gaztea da hura. Hara zer kontatu digun:

Noiztik pilotari?

Txikitatik, 8-9 urte nituenetik.

Zergatik?

Etxean amari betidanik gustatu izan zaio pilota, baita osabari ere...

Amateur mailako txapelketa irabazi duzu. Goraino iristea da zure helburua?

Ez, hemen, Araban, ibili gura dut, hemen inguruan jokatu eta kito. Profesionala izatea oso zaila da, oso ona izan behar zara horretarako, bestela ez

dago ezer egiterik. **Zer iruditzen zaizkizu Aspek eta Asegarek egindako aldaketak? Lege berriak...**

Hori profesionalen mundua da, eurek gura dutena egiten dute eta hor ez dago inork ezer esaterik.

Barriolarekin gertatutakoari zer deritzozu?

Uste dut azkenean txantajea egin diotela: sinatuz gero, jokatu egingo luke eta sinatu ezean, kalera. Uste dut pilotari onenek jokatu beharko luketela, eta ez enpresek gura dutenek.

Zein aukeratuko zenuke Retegiren ordezkotzateko?

Niri, berez, Eugi asko gustatzen zait, baina azkenaldi honetan finalean ez zait askorik gustatu.

Gustatzen zait nahiko konpletua delako: ez da oso handia, nahiko ondo jokatzeko



du... eta bestetik, oso indartsua da eta indarrarekin jokatzeko du. Gainera, izan dituen lesioak izan eta gero... **Aramaio kiroldegian**

HERRIKO JOLASAK

AKILINO BARDAUNDI

Partaideek jokatzeko leku bat aukeratzeko dute eta zotz eginda erabaki nor izango den Akilino Bardaundi. Pertsonaia horren papera egiten duenak eskuan makila handi bat izaten du. Beste guztiek bere izena oihukatzen dute, eta berak harrapatu eta makilarekin *egurre* ematen du.

Jolas hau kanpoaldean egiten zen eta neguan batik bat, berotzeko. Eskolara joateko adina zuten mutilen artean jokatzeko zen.

KANTOI-KANTOIKA

Bost partaide dira beharrezko eta lau kantai aukeratu behar dira, elizpekoa, etxeetakoak edo zuhaitzak. Pertsona bat erdian eta besteak kantai batean jartzen dira. Bi partaide gurutzatzen diren bitartean, hauen postuak libre geratzen dira. Erdian dagoenak une hori aprobetxatu beharko du postura heltzeko eta beste bat baino lehenago heltzen bada, bestea erdira pasatu beharko da.

pilotarako zaletasun handia ikusten da...

Bai, azkenaldi honetan ume piloak dabil pilotan. Nik esango nieke aurrera jarraitzeko eta norabait heltzea gura badute ordu asko sartu eta jarraitu eta jarraitu egin behar dutela, etengabe.

Baina mutikoak bakarrik ibiltzen dira, neskendako ez dago ezer ere?

Hemen ez dago ezer; ez hemen ezta Euskal Herrian ere. Akaso palan-edo egin zezaketen zerbait.

Eskuz ez...?

Ez dakit. Eskuak pilotarekin asko mintzen dira eta akaso gogorragoa da; baina palan edo frontenisean lasai asko egin dezakete. Baina ez dago ezer, akaso ez da horretarako kulturarik izango eta horregatik ez da egiten.

EGUZKIGRAF
inprimategia
Industrialdea F-0-4
Telefonoa: 791844
Faxa: 792941
ARETXABALETA

BEHERAPENAK!

ZABALA
oinetakoak
53 urtean elkarrekin ibili gara
Erdiko kale, 18 • Tel.: 943 79 14 27

ERRETRATUZAHARRA

Oroimenerako
argazkia
Portaloian

S arritan joaten ei zen mendira oraingo asteko argazkian agertzen den lagun taldea, bai ingurukoetara baita urrutiragoko mendietara ere. Edozelan ere, bazuten gustuko ibilbide bat, askotan egiten zutena: Arrasatetik irten, Kanpanzarrera igo eta handik Antzuolara joaten ziren. Antzuolan geldituz txoa egiten zuten, "hamarretako ederra" egiteko. Gure berriemaileak kontatu digunez, gainera, hamarretakoa zeinek ordaindu jokoan egiten zuten; jakina, galtzaileak ordaindu behar!

Behin barruak ondo berotuta, ibilaldiarekin segitzen zuten, baina lasaiago. Antzuolatik Labegarrietara jaisten ziren eta han autobusari itxaroten zioten, berriro ere Arrasatera itzultzeko, bazkal ordurako.

Edozelan ere, argazkia atera zuteneko egunean ez ziren mendira joan: "Jaiak-edo izango ziren, guk argazki bat ateratzeko... sanjuanak akaso...". Atzeko etxeari begiratzuz gero, berriz, ikusten da Portaloian daudela.



Hauexek dira gure lagunak. Makurtuta edo eserita daudenak, ezkerretik hasita: Luis Arana, Txomin Txiki, Paulo Etxebarria, Paulo Zumelaga (betaurrekoduna), ondorengoa ezezaguna da eta azkena, alkandora zuriduna, Paulo Hermoso. Haren atzekoa, txapela duena, Miguel Arrieta

da eta haren ondoan dagoena, ustez, Imanol Zeziaga *Divino*.

Eta tente, eskumatik hasita, hauexek dira: Jesus Otadui, Juanjo Aristi, Angel Arregi, Legarre baserrikoa, ezezaguna, Heriz, Patri Egidazu, Ojala (erdi makurtuta dagoena), Julio Galarta, Paulo Garai, hurrengo

hirurak ezezagunak dira eta tente dagoena, baina aurreko aldean, Antonio Uribetxeberria da.

Argazkia: Miguel Arrieta
Berriemaile: Miguel Arrieta
Urtea: 1950-60ko hamarkada

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Zarugaldeko
argazki
zaharrena

Orain arte, Zarugalde kaleko hainbat argazki argitaratu ditugu, baina hauxe da guztietan zaharrena.

Zein urtekoa den ez badakigu ere, gutxi gorabehera 1920an ateratako argazkia dela uste dugu. Zarugaldeko kalea izan zen Mondragoeko erdigunea alde batera utzi eta herria zabaltzen ahalegindu zen lehenengo kalea. Orain baino askoz zabalagoa.



± 1920 Atzealdean dagoen Garaipenaren Arkuatik izango ez balitz, zaila izango litzateke Zarugalde kalea dela asmatzea.



2001 Argazki bi hauetan argi geratzen da orduko asmatzearen lana gaur egun zeinek edo, hobeto esanda, zerk egiten duen.



ALDEDI
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, atak, oholzak, leihoak etab.



Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baseria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83
Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Iztue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

ARANZABAL



KOOP. E.
Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53



ION LEIHOAK

PVC • Aluminoa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea, 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxe.: 943 79 11 35



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77
Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93



Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza • Bainuak
Gasa • Berogailuak**

Margoak

APAIN
MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

JOVI

10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak • Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1
Tel./Fax: 943 79 76 03

**Gida honetan azaldu
nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91
telefonora**

TDCi

Common Rail berria
130 CV



lider **naturala**

 **MUGARRI**



DEBA GARAICO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

www.mugarri.es / mugarri@mugarri.es